

## Garbiketak egiten



Gorka kanpoan jolasten ari da. Futbola asko gustatzen zaio baina seiak dira eta etxera joan behar du. Etxean sartu eta...

- Kaixo! Arratsaldeon! Zertan ari zarete? -Galdetzen du Gorkak.
- Gu lan egiten ari gara eta zu kalean jolasten -Erantzuten dio amak.

Aitak, haserre, esaten dio: -Nolako aurpegia, mutil!

Gorkak arrebarekin jolastu nahi du eta aitari galdetzen dio:

- Non dago Maite?
- Bere logela garbitzen. Zuk zeurea garbitu behar duzu -Erantzuten dio aitak.
- Ongi da! Banoa! -dio Gorkak.

Gorka zapi bat hartzera doa sukaldera. Bapatean katu bat ikusten du

eta galdetzen dio amari:

- Norena da katu hau?
- Maiterena da. Kontuz ibili eta ez zapaldu -Erantzuten dio amak.

Gorka bere logelara doa, baina ez zaio garbitzea gustatzen eta musika entzuten ari da. Gero, arrebarekin doa eta esaten dio:

- Maite, hau zikin dago, gaizki garbitzen ari zara.

Orduan Maitek, nahiko haserre, erantzuten dio:

- Kopetaraino nago! Hemen duzu irensgailua. Hartu eta garbitu dena ondo.

Gorkak irensgailua hartu, martxan jarri eta... miauuuu! Maiteren katua ohe azpian dago eta buztana irensgailuaren barruan.

- Lagundu, lagundu! Ama, aita, etorri, etorri!! -oihukatzen dute.



## GARBIKETAK EGITEN

### Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Non jolasten ari da Gorka?

.....

2.- Zer ordu da?

.....

3.- Zertan ari dira Gorkaren gurasoak?

.....

4.- Nola dago aita?

.....

5.- Norekin jolastu nahi du Gorkak?

.....

6.- Zertara doa Gorka sukaldera?

.....

7.- Norena da katua?

.....

8.- Zertan ari da Gorka bere logelan?

.....

9.- Non dago Maiteren katua azken irudian?

.....

10.- Non sartu da katuaren bustana?

.....